LAZKAOKO
UDALA

2019KO ABENDUAREN 23KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemeretziko abenduaren hogeita hiruan, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2019ko abenduaren 9an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2019ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 105 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA SEI MILA ZORTZIEHUN ETA BERROGEI EURO ETA HOGEITA HIRU ZENTIMO (106.840,23 €)takoa onartzea erabaki da.

III.- KULTURAKO DIRU LAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako diru laguntza hauek onartu ditu:

- San Benito Ikastola.-
  Lehenengo batxillergoko ikasleek 2019ko San Migel jaietako egitarauaren barruan egindako jarduerarengatik 800€ ematea.

- Orobione jubilatuen elkartea.-
  2019ko San Migel jaietako egitarauaren barruan egindako jarduerengatik 200 € ematea.

- Zawopi Elkarteari.-
  Kabalgata eta Astotxo eguneko jardueren antolaketarako diru laguntzaren kontura 3.000 €ko aurrerakina ematea.

- Ansoategi Elkarteari:
  Astotxo eguneko jardueren antolaketarako diru laguntzaren kontura 3.000 €ko aurrerakina ematea.

IV.- BASHERRI EGUNEKO DIRU LAGUNTZAK .-

LAZKAOKO
UDALA

Landa lur arloko zinegotziaren proposamenaren aurrean, Gobernu Batzordeak honako diru laguntza hauek onartu ditu:

- Basherri egunean zozketatu ziren Lazkaoko baserrietan erosketa egiteko bonoen ordainketa:

Onuraduna	Baserria	Zenbatekoa
- Axier Mujika Zubiarrain	Ertzile	110,00 €
- Isidro Sukia Izaskun	Borda berri	50,00 €
- Maria Jesus Insausti Onda	Iztueta	20,00 €
- Juan Manuel Iztueta Arregi	Intzartsu	100,00 €

- Garikoitz Barandiaran Sagastumeri Basherri egunean azokara ekarritako lau astorengatik 110 € ematea.

V.- EKONOMIA SUSTAPENERAKO DIRU LAGUNTZAK .-

Merkataritza eta ostalaritza sustatzeko udazkeneko kanpainaren barruan afarien opariak ordaintzeko proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako diru laguntza hauek onartu ditu:

Onuraduna	Jatetxea	Zenbatekoa
- Josemi Arnaz Gomez	Nerea Jatetxea	158,45 €
- Mª Karmen Garmendia Vitoria	Nerea Jatetxea	160,00 €
- Alaine Mingo Gonzalez	Amebi Sagardotegia	143,00 €

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Usoen arazoen inguruan galdetzen du Ormazabal zinegotziak eta alkateak erantzun egiten dio galdetutakoari.

Beste alde batetik Iturgaitzagan arratoien arazoaren inguruko kexak daudela esaten du Amundarain zinegotziak eta alkateak erantzuten dio jasotzen duela eta aztertuko duela gaia.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko seiak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

LAZKAOKO
UDALA